

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



BILDUMA PARTIKULARRA

BURGOSKO EPAIKETAREN AURKA, MONTSERRATEN ITXITA

1970eko abenduaren 3tik 9ra bitartean Burgosko Prozesua egin zuten hamasei euskal herritarren aurka. Bertan, tribunal militarrek bederatzi heriotza zigor eta bostehunetik gora kartzela urte ezarri zizkien akusatuei. Heriotza zigorrak konmutatu egin zizkieten, Euskal Herrian, Estatuan eta New York, Buenos Aires, Caracas eta beste hainbat hiritan izan ziren mobilizazio handiak zirela-eta, baita Europako eta Ameriketako zenbait gobernuren presioengatik ere. Epaiaketaren aurka protesta egiteko, abenduaren 12tik 14ra bitartean Montserratren itxialdi bat egin zuten 300 intelektualek. Han epaiaketaren aurkako agiri bat idatzi zuten, heriotza zigorra indargabetzea eta preso politikoentzat eta erbesteratuentzat amnistia eskatuz eta Euskal Herriarekiko eta haren aldarrikapenekiko atxikimendua agertuz. Besteak beste, Lluís Llach, Joan Miró, Antoni Tapies, Joan Manuel Serrat eta Nuria Espertek sinatu zuten agiria. Hiru egunen buruan, monasterioa Guardia Zibilak inguratuta zegoela, itxitakoak irten egin ziren Guardia Zibilaren eta monasterioko abadearen arteko negoziazioen ondoren. Argazkiak itxialdiko une bat islatzen du.